

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Txikimarket merkataritza txikia sustatzeko plataforma berritzailea da. Hau da, tokiko negozioen garapena butzatzeko ekosistema digitala da, Euskal Herriko denden informazioa zabaltzea, bertako kontsumoa eta bezeroen fidelizazioa bermatzea helburu duena. Gure plataforman, gure sarearen barnean dauden negozio txikien informazioa topatzeaz gain, bertatik erosketak egiteko online denda topatuko duzue. Horretaz gain, bazkide diren pertsonentzako zerbitzu anitzak eskeintzen ditugu: fidelizazio txartela, deskontuak, zenbait ekimenetan parte-hartzeko aukera... Tresna digitalen bitartez, gure lurraldeko produktuak modu eroso eta errazean saltzeko bideak proposatzen ditugu, betiere oinarrian jasagarritasun printzipioak errespetatuz.